

PP. Antonio Basagoitiren zerrendaren azken postuan joango da Espainiako Gobernuko presidentea



MANUEL H. DE LEON / EFE

Jose Maria Aznar agurtzera igo ziren taula gainera Carlos Iturgaitz, Jaime Mayor Oreja, Maria San Gil, Antonio Basagoiti eta Alfonso Alonso, Espainiako gobernuburuak Bilboko zerrendan hautagai izango zela iragarri bezain laster.

ESANAK

JOSE MARIA AZNAR

(Espainiako gobernuburua)

«Nirea testigantza bat besterik ez da, baina askatasunak testigantza asko behar ditu»

ANTONIO BASAGOITI

(PPren Bilboko alkategaia)

«EAJko hautagai asko baino bilbotarragoa da Aznar»

IÑAKI AZKUNA

(Bilboko alkatea)

«Espainiako eskuindar setatienaren botoak lortzeko ahalegina da»

Udal hauteskundeetan Bilboko zerrendan hautagai izango da Aznar

Aita bilbotarra zuela-eta EAEko alderdikideengandik hurbil egon nahi duela azaldu zuen

Agentziak | MADRIL

Jose Maria Aznar Espainiako gobernuburua Bilboko zerrendan hautagai izango da hurrengo udal hauteskundeetan. Antonio Basagoiti PPko hautagaiaren zerrendaren bukaeran, 29. postuan, joango da, atzo Madrilen PPk egindako Kontzentzio Nazionalen ustekabearen adierazi zuenez.

Aita —«gizon serioa, zintzoa eta langilea»— bilbotarra zuela azaldu ondoren, EAEko bere alderdikideengandik hurbil egon

nahi duelako aurkeztuko dela adierazi zuen. Bere erabakia testigantza bat besterik ez dela badakiela esan zuen, baina «askatasunak testigantza asko» behar dituela.

Basagoitik joan den azaroan egin zion proposamena, PPren Bilboko hautagaiak gero azaldu zuenez, baina erantzunik ez zuen atzo arte jaso. Bilbon orain arte EAJri irabazi dion bakararra Aznar izan dela gogorarazi zuen PPko alkategaiak, 2000ko hauteskunde orokorretan PPk jeltzaleek baino 5.000 boto gehia-

go lortu zituela eta. Aznarri Bilboko auzuneetan kanpaina egiteko eskatuko diola aurreratu zuen Basagoitik. «Aznar EAJko hautagai asko baino bilbotarra goa da», gehitu zuen.

EAEko PPko burukide eta hautagaientzat ezustekoa izan zen Aznarren iragarpena, haiek esan zuten. Jaime Mayor Orejak eta Carlos Iturgaitzek eskertu egin zioten erabakia, eta Maria San Gil Donostiako alkategaiak zorionak eman zizkion Basagoitiri, hautagaitza «indartu» duelako.

Javier Arenas PPko idazkari nagusiak esan zuen Aznarren erabakiak bultzada emango diola PPren udal zerrenden osatzeari. Arenasek berak, 1999ko bozetan egin zuen bezala, Errenteriako zerrendan parte hartzeko asmoa duela esan zuen.

Azkuna: «Zirko itxura du»

Iñaki Azkuna Bilboko alkate eta EAJren hautagaiak Aznar Bilboko hautagai izateak «zirko itxura» duela adierazi zuen, eta «eskuin espainiar setatiena-

ren» sostengua lortzeko helburuz hartutako erabakia dela. Bilbon barik Galizian aurkezteko proposatu zion Aznarri, «han jende garrantzitsuen beharra dute eta».

Patxi Lopez PSE-EEko idazkari nagusiari Aznar Bilbon hautagai aurkezteari albiste ere ez zaiola iruditzen adierazi zuen, eta euskal gizarteak «itxurakeria» baino «politika eraginkorrak» behar dituela.

Gorka Knörr EAKo idazkari nagusiak ere kritikatu zuen Aznarren erabakia, eta bere Gobernuaren «kudeaketa kaskarra» estaltzeko propaganda keinutzat jo zuen.

Julia Madrazo Ezker Batuko Bilboko zinegotziak porrota iragarri zion Aznarri, bere hitzetan euskal gizarteak eta bilbotarrek «Aznarren politika atzerakoa eta zurruna» errefusatu egiten dutelako.

PSE-EE. «EAJ eta EAren moduan» sozialistek ez dutela eztabaidako «boterea zelan banatu» adierazi du PSE-EEko buruak

Lopez: «Gipuzkoako aurrekontuez akordioa lortzeko itxaropena galduta beharko lukete»

Onintza Enbeita | BILBO

EAJk eta EAK Gipuzkoako aurrekontuei buruz sozialistekin akordioa lortzeko itxaropena galduta beharko luketela adierazi zuen Patxi Lopez PSE-EEko idazkari nagusiak atzo Bilbon, alderdiko batzorde nazionalaren bileraren ondoren. Roman Sudupe Gipuzkoako diputatu nagusiak herenegun aurkeztu zuen aurrekontu proiektua,

eta joan den urtean bezala PSE-EEekin hitzarmena egiteko esperantza agertu zuen.

Lopezek, batzorde nazionalak onartutako ebazpenaren azalpenean, gogor kritikatu zuen EAJren eta EAren jokaera. Haren esanetan, PSE-EEk ez du eztabaidatuko, EAJ eta EAren moduan, «boterea zelan banatu, herritarrek eskatzen dutena ahaztuta».

Kritika bereziki gogorra egin

zion Lopezek Sabin Intxaurre Jaurlaritzako Ingurumen kontseilariari. Herri kontsulta ETAren indarkeriarik gabe egin beharrezkin ados ez dagoela esan zuen Intxaurrek ETBn, «ETA Espainiako Estatuaren infiltratuz beterik dagoenez batzuetan Estatuaren mesedetan jokatu du duelako». «Adierazpen horiek ez daukate zentzurik. Pertsona horrek politikatik kanpo behar luke», esan zuen.



TXEMA FERNANDEZ / EFE

Patxi Lopez, atzoko agerraldian.